

ETORKIN- LITERATURAREN APOLOGIA: ABEGIKORTASUN PLANETARIO BATERANTZ?

Paula Meiss

Doktorandoa literaturaren teorian eta literatura konparatuan
Universitat de Barcelona

Aipatzeko gomendioa || MEISS, Paula (2010): "Etorkin-literaturaren apologia: abegikortasun planetario baterantz?" [artikulua linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 2, 13-29, [Kontsulta data: uu/hh/ee], < <http://www.452f.com/index.php/eu/paula-meiss.html> >.

Ilustrazioa || Carlos Aquilué

Itzulpena || Aroa Huarte

Artikulua || Jasota: 2009/10/09 | Komite zientifikoak onartuta: 2009/11/8 | Argitaratuta: 2010/01

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe.



Laburpena || Honako artikulu honek migrazio-bidaiaren kontakizuna diziplina konparatista bateko aztergai moduan erabiltzearen aukera defenditzen du, kontutan hartuz, batetik, Armando Gniscik abegikortasunaren inguruan egindako hausnarketak, eta bestetik, literatura konparatuaren izaera planetarioari buruz Gayatri Spivakek eginak. Honela, literatura konparatuaren baitan ‘literatura nazional’ kontzeptuaren beharrik izango ez duen ikerketa ildo baten aldarrikapena egiteko asmoa du. Migrazio-bidaiaren kontakizunaren azterketak enkontruen konparatismo bat ahalbidetzen du hala mamian nola forman, bidaiaren tradizioaren baitan aintzat hartzen diren zenbait aldagaien bitartez.

Gako-hitzak || Bidaia | Migrazioa | Literatura konparatua | Gnisci | Spivak | *Weltliteratur*.

Abstract || This paper suggests the possibility of making use of the narrative of migration as the object of study of a comparatist discipline that takes into account Armando Gnisci’s considerations on hospitality, as well as Gayatri Spivak’s on planetarity and comparative literature. In this sense, the paper aims at suggesting a possible line of research in comparative literature that needs not rely on the concept of national literature to be developed. The analysis of the narrative of migration, through a series of variables well recognised in travel literature, allows both in form and contents a comparatism of the encounter.

Key-words || Travel | Migration | Comparative literature | Gnisci | Spivak | *Weltliteratur*.

0. Nazioarekiko (in)dependentzia

Lan honen helburua honako premisa honetatik ondorioztatzen da: literatura konparatuak gaur egunean ere, bere burua diziplina moduan definitzeko, luzaz finkatu eta zalantzan jarritako *literatura nazionalen* beharra onartu badu ere¹, posible da artean onarpen hau diziplina beraren funtzionamenduan *sine qua non* baldintza izan ez dadin beharrezko forma eta errekurtsuak bilatzea. Horrela, formatako bat tradizio imagologikotik atera daiteke, bidaia-literatura ikerketa konparatistaren aztergai pribilegiatu bezala aukeratu zuena (Brunel, 1994: 125; Gnisci, 2002:255). Bidaia-kontakizuna, modu klasikoan ulertuta, abiatu, bidaiatu eta itzultzen den hori da. Artikulu honek bidaia-kontakizunaren ikerketarako iradokitzen duena dagoeneko irekita dauden zenbait azterlan-ildo eguneratzea da, eta eguneraketa hau migrazio-bidaiaren kontakizunean egitearen aukera. Modu horretan, eta kontutan hartuz testu bakoitzaren testuinguru historiko zein soziala, esanahi bat izateko nazioaren beharrik ez duen literaturara hurbiltzeko migrazio-bidaiaren kontakizunak ematen dituen bideak aztertzea posible izango da. Nazioz aldatzen duen testu literarioa den heinean, migrazio-kontakizun bat atxiki lekizkioken bi identitate nazionalen artean dagoela ulertzen dugu, eta, aldi berean, bakar batean ere ez. Horrela, erazte hain zaila den nazio-identitate literario horren iragankortasuna errepresentatzen du: arazoaren eredia eman eta taularatu egingo du.

Migrazio-esperientziaren kontakizuna bidaia-kontakizunaren baitan zein modutan txertatu daitekeen finkatzea interesatzen zaigu. Badago bidaia-literaturaren tradizio benetan finko bat, definitzeko momentuan etengabe arazoak sortzen baditu ere. Testu mota horiek, bai autoreen baita kritikaren gogoetarako motibo izan dira, eta beren hainbat elementuren analisiaren bidez txertatu ahal izango dugu migrazio-kontakizuna bidaia-literaturaren tradizio zabalago baten baitan. Zentzu horretan, testu produkzio zabal bat egongo da 'migrazio' kontzeptuarekin etiketatu litekeena, baina gure proposamenetik kanpo geratuko lirakeenak, bereizletzat ezarri ditugun aldagaiak (denak edo batzuk) ez jasotzeagatik. Horregatik, istorioa kontatzeari buruzko gogoeta bat daukan migrazio-bidaiaren kontakizuna dugu mintzagai, gogoeta hau gehiago edo gutxiago zaindua baldin bada ere. Hots, autopertzepzioa eta Bestearen ikuspegiak aldarrikatzen dituen migrazio-bidaiaren kontakizuna; literaturaren bitartez identitatea eraikitzeaz hausnarketa egitea baimentzen duena; esperientziaren kontaketa estatus autobiografiko zein literarioari buruz (banaketa honek baliozkotasunik baleuka) eztabaidatzea ahalbidetzen duen migrazio-bidaiaren kontakizuna; eta azkenik, paisaiarekiko erlazioaren kontzientzia baten bidez migratzaileak harrera lekuarekin duen harremanaz pentsatzeko gaitzen duen bidaia-kontakizuna.

OHARRAK

1 | Literatura konparatuaren eskuliburu guztiek daukate beren baitan literatura nazionalen buruzko atal bat, dela bere existentzia internazionalen oinarritzeko, edo bere alde supra-nazionalen korapilatzeke.

1. Migratzea ez da bidaiatzea?

Eremu hispaniarreko egoeraren errepaso bat eginda (bidaia-narratibaren gainean orokorki, eta «literatura eta migrazioa» gaiaren gainean bereziki), harrigarria da migrazio-narratiba bidaia-literaturaren barnean dagoen edo ez eztabaidatzen duten hausnarketa teoriko artikulatuen gabezia. Harrigarria, baita ere, «bidaiak eta literatura» gaiari buruzko artikulua bildumetan migrazio-literaturari buruzkorik ez topatzea². Caren Kaplanek (1996: 2-4) beharrezkoak diren zenbait gogoeta egiten du bidaiak (post)modernitateaz geroztik hartzen dituen forma diferenteak ezberdintzeko, eta baita migrazioaren lekua topatzeko (desplazamendua forma espezifiko den heinean) bidaiaren kontzeptu orokorraren barnean. Asmoa ez da desplazamendua bezalako kategoria estetiko hobe baten bila ibiltzeagatik aztergaia testuingurutik ateratzea. Bai, ordea, onartzea «migrazio-bidaiaren literatura» izenaren pean bildu litezkeen testu aukeraketa batek testuek beraiek migrazioa miran jartzeko duten borondatea errekonozitu beharra eskatzen duela. Izan ere, Kaplanek dioen moduan «such a solidarity or affiliation is political, however, and cannot simply be assumed through the articulation of aesthetic principles of literary exile or the deployment of generalized metaphors» (1996: 105).

Domenico Nucera (2002: 248) hausnarketa etimologikoetatik abiatuz saiatzen da bidaia-literatura definitzen. Bere sailkapenak, ordea, apropos uzten du migrazioa bidaia izatearen aukeratik kanpo. Izan ere, honakoa baieztatzen da: gaur-egungo gertakari bezala, «el viaje ha terminado» (2002: 280). Postulatu horrek ezer berririk deskubritzerik ez dagoela pentsatzea dakar: «hoy cualquier lugar está tan cerca y es tan poco imprevisible que ya no ofrece ninguna meta prestigiosa y exclusiva, reservada a pocos elegidos audaces, entonces, para poder ostentar el título de viajero» (281). Edozein lekuren aurrikusgarritasunarekin ados egon gaitzke edo ez (eta, egiaz, ez gaude ados), tokiak ibilian bakarrik bihurtzen baitira esanguratsuak, eta beti bueltatu gaitzke toki bat igarotzea. Defendatu nahi dugun planteamenduan, immigratzearen ekintza espazioen berresanguratze bat ekar dezakeen ekintza da. Espazio hauek mendebaldeko tradizioarentzat gertukoak diren arren, gugandik uste bezain bestelakoa ez den Beste horrek berriz igaro ditzake, eta hori ezin da alde batera utzi «bidaia amaitu egin da» esatearekin. Immigratzearen ekintzak gauzak berriz pentsatzea ere ahalbidetzen du: bidaia bera, bidaiaria, eta horren motibazio eta helburuak. Hain atzetik datorren eta hainbeste denboran alde batera utzi den pertsonen desplazamendu hau baztertzeak ez du humanitateen garapenean laguntzen. Auerbachek dioen moduan, historiako fenomeno bat ukatzea berarengandik eskapatzen saiatzea da, eta literatura konparatuak ezin du hori egin³.

OHARRAK

2 | Ikusi, adibidez, Mariño, M. eta María de la O Oliva, 2004 eta 2006.

Era berean, *abiatu*, *bidaiatu* eta *itzuli* aditzen etimologietan jarrtzen du arreta Nucera. Horrela, gaur egun termino hauei ematen dizkiegun esanahien interpretazioa eginez, literatur generoaren definizio bat eskaintzen digu, eta bere abiapuntua erabilgarria zaigu. *Abiatu* aditzaren bitartez gisa honetako ekintza orok duen bereizte eta elkartzearen esanahi bikoitza finkatzen du. *Bidaiatu* aditzarekin, honek desplazamendua baino gehiago dakarrela nabarmentzen du; bidaiatzea bada baita ere «cómo ha sido recibida y transformada la experiencia del viaje, es decir, el descubrimiento del “lugar otro” y por eso espera un re-nacimiento bajo una forma distinta, dada la experiencia del “lugar otro” y del encuentro con el “otro”» (248). Honaino, ezerk ez luke eragotziko migrazio-narratiba bidaiaren genero zabalagoan sartzea. Baina *itzuli* aditza ere gaineratzen da, eta horrek galaraziko luke Nuceraen ustez migrazio-kontakizuna bidai-kontakizuntzat hartu ahal izatea: «Llegar a un lugar y quedarse allí no es viajar. Es más bien lo que en una biografía sería clasificado como un simple traslado, cambio de residencia» (250). Arrunta deritzon prozesu horri buruz jarduten dira narratiba honi antzematen dizkiogun posibilitate guztiak. Gure ustez, migrazio-bidaiaren kontakizun oro neurri batean *itzultze* horren bilakaera moduan uler daiteke, izan ere, itzultzeak beharrezkoa izaten jarraitzen baitu. Itzulera ez da inoiz alde batera utziko. Ikusi beharko da orduan ea zer gertatzen den atzeratutako itzulera horrek bidai inoiz ez amaitzea badakar, alde batetik; eta bestetik, amaitu ahal izateko abiapuntura itzultzea eskatzen ez duten forma berriak bilatzea ekartzen badu. Nucera berak dioen moduan «siempre se parte para volver, también en el caso en que la meta no coincida geográficamente con el punto de salida» (2002: 250).

1.1 Nostalgia

Ezinezko itzulera honen bitartekaria den elementua, aztertutako bibliografian errepikatzen denez, nostalgia da. Hitz honek, etimologiari dagokionez, «itzulera» eta «mina» esanahiak daramatza. Konbinazio honen interpretazio posibleetako bat atzeratutako itzulerak sortzen duen mina da. Besteak, emankorragoa agian, itzulerak minaren bukaera bermatzen ez duela jakitearekin dauka zerikusia: behin abiatu ondoren jada itzulerak ez gaitu inoiz leku berera eramango. Bidaiaren barne-gertaera honek –besterik gabe bueltatzea ezinezkoa denaren kontzientziak– gertakariaren beraren kontaketa ahalbidetzen du, gertakaria bera definitu eta burutzen duen narrazioa gauzatu. Pentsa genezake *itzulitakoan ezer ez dela berdina izango* jakiteak modu kontserbatzailean funtzionatuko duela. Heredatutako diskurtsoak dekonstruitzeko eta gertakaria kontatuz joko literarioan identitate berri bat berrezartzeko aukera baino indar handiagorekin. Elleke Boehmerrek zera dio:

Migrant literatures represent a geographic, cultural, and political retreat

OHARRAK

3 | «El que som, ho em esdevingut en la nostra història, i només en ella podem romandre com a tals i desenvoluparnos. Mostrar això, de manera penetrant, i que no s'oblidi, és la tasca del *Weltfilologen* (filòleg universal) dels nostres temps», Auerbach, E. (1958: 120).

by writers from the new but ailing nations of the post-colonial world back to the old metropolis, the literatures are a product of that retreat; they are marked by its disillusionment (1995: 237).

eta berarekin espezifikotasun historiko hori aitortu nahi dugu, migrazio-mugimendua alaitasun eta axolagabekeriaz hartua izatea ekiditen duena. Kontua ez da traumatikoa gertatu ahal izan den esperientzia bat goratzea, baizik eta hortik literatur testu moduan atera daitekeena identifikatu, landu eta konparatzea. Gisa honetan, helburua ez da ezta literatura baten balioa handitzea izango bateko edo besteko tradizio nazionalak dela azpimarratzeko, literatura hori egilearen jatorrizko gizartean erabat ezezaguna eta ailegatzen den munduan gutxi errekonozitua izan daitekeela kontuan hartuta. Testu horien *erabilpen* dago koska, hitzaren itsustasunaz gaindi, literatura beste era batera pentsatzen hasten saiatzeko.

1.2 Erbestek eta diasporak

Gure ustez, *erbestea* eta *migrazio* edo *diasporaren* artean egiten den bereizketaren baitan ez daude borondate eta hautuaren osagaiak soilik (osagai hauen gabeziagatik lehenengoan; eta bigarrenetan, hasiera batean behinik behin, egon badaudelako). Beste elementu bat kontuan hartzea ere eskatzen du bereizketa horrek: Nico Israelek dioen moduan «how issues of class and of post- (or neo) colonialism inflect both the experience of displacement and the reception of texts written about displacement» (2000: 13). Erbesteari, gai literario bezala, estatus bat aitortzen zaio migrazioaren gaia oraindik ere nahiko bazterrekoa den bitartean, batez ere, eremu hispaniarrean. Eremu anglofonoan, postkolonialismoaren ikuspuntutik idazle emigratuek aritzeko *diasporaren* kontzeptua garatzen da, baina uste dugu kontzeptu honek idazle horik ailegatzen diren esparru sozio-kulturalean duten presentzia erlatibizatzen jarraitzeari laguntzen diola. Era honetan, diasporaren kontzeptuak jatorri beretik datozen idazleak ukitzen dituen heinean (hauen testuetan jatorri hori erabat presente egonez), lan honek ekidin nahi duen literatura nazionalen araberrak sailkapena laguntzen du. Beste alde batetik, *francophonie* kontzeptuak frantses hizkuntzan idatzitako produkzio guztia barne hartzen du, baina kritikak daude terminoaren ustezko unibertsaltasunaren atzean kolonialismo berri bat ote dagoela aipatzen dutenak; dekonstruitu ezean⁴, gordeta geratuko den kolonialismoa. Era berean, Frantziara egiten den migrazio-bidaiaren kontakizuna jatorrizko herrialdearen esku gelditzen da kritikaren interesa pizteko orduan, Hargreavesek dioenari kasu eginez gero (1995:89), horrek arreta gehiago jartzen baitio etorkin horien ondorengoen ekoizpenari. Horregatik, ikuspegi anglofono eta frankofonoak ez digute migrazioaren gaia literaturan tratatzeko eredu bezala balio, ez baitute konpontzen testuinguru hispaniarrean migrazio desplazamenduaz hitz egiteko identitate nazionala alde

OHARRAK

4 | “the adjective ‘francophone’ has to be decolonised, since it is often used in France for everything that is written in French but that is not French, reinstating an imperial dichotomy between France and ‘the rest’” Milhaud, O. (2006)

batera uztearen arazoa.

Alabaina, gure galdera da zein den nazioa aintzat hartuko ez duen literatur material hau ikertzeko trataeraren alternatiba. Kasu honetan, aztergaia enkontruaren bizipenaren kontakizun literariotzat hartzen dugu. Enkontru hau, geratzeko iristen den kanpotar baten eta komunitate baten artekoa litzateke. Komunitatea, era berean, espazio moduan (toki bezala) eta baita modu pertsonalean ere (jende multzo legez) kontsideratuta. Honetarako, azterketaren abiapuntua Georg Simmelen postulatuetan oinarritzen da, honako hau planteatzen duena: «la relació amb l'espai és només, d'una banda, la condició i, d'altra banda, el símbol de la relació amb les persones» (1988: 318-319). Horrela, migrazio-bidaiaren kontakizunak Bestearekiko erlazioan eta definitzeko prozesuan dagoen identitatearen errepresentazioaren azterketa ahalbidetuko digu. Eta, era berean, enkontruaren kondizio eta ikur den espazioarekiko harremanaren errepresentazioa ere analizatu ahal izango dugu.

Narratiba honen autorea migrazioaren esperientziatik igaro izatea ez luke ezinbesteko baldintza izan behar. Aitzitik, etorkinek ekoiztako narratiba, errepresentazio eta egituretan etorkinak barne hartzen dituen narratiba, eta migrazio-bidaiaren enkontruaren motiboa literarioki tematizatzen duen narratibaren artean ezberdintzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Azken honek erakartzen gaitu bereziki konparazioa egitean identifikazio nazionalak gainditu eta konparazioari bidea irekitzen dion neurrian. Hauxe ulertzen du Guillének gai bezala: «una parte de las experiencias o creencias humanas que en determinado momento histórico cierto escritor convierte en cauce efectivo de su obra y, por ende, en componente del repertorio temático-formal que hace posible y propicia la escritura literaria de sus sucesores» (1985: 53). Zentzu honetan, erbesteak, tematizazio moduan, migrazioak baino tradizio askoz ere zabalagoa topatzen du. Prozesu horretara hurbildu ahal izateko marko teoriko bat finkatzeko saiakera ari da pixkanaka osatzen eremu hispaniarrean, migrazioa gai literario bezala ezarri nahian, eta lan hau saiakera horren parte da. Artikulu honetan, migrazioaren literaturaz ari garenean migrazio-bidaiaren kontakizunaz ari gara, agerikoa izan ala ez, gogoetaren bat egiten duenaidazketak, irakurketak edota letrak bideratutako etorkin eta zirkulazio espazio berriaren arteko erlazioari buruz.

2. Dagoeneko-ez-den-inperioaren metropolira bidaiak: postmodernitatea ala postkolonialismoa?

Gai hau (inperioa izaten jarraitzen ez duen inperioaren metropolira migrazio-bidaiak), beraz, garaikidetasuna pentsatzeko bi forma handiren epifenomeno bezala hartzen dugu: alde batetik,

postmodernitatea, eta bestetik, postkolonialismoa. Lan honen helburuetatik at geratzen da bi errotulu handi hauek sakonki aztertzea, baina pare bat ardatz berreskuratzea interesatzen zaigu, migrazio-bidaiaren literaturak hauexek ikertzea baimentzen duela uste dugulako.

Literaturamotahonenikerketaxertatzeko aukerapostmodernitatearen zenbait postulatu arteko artikulazio bikoitzak ematen du. Postulatu hauei subjektu etorkinak Simmelek defendatzen duen kanpotarraren lekutik erantzuten die: harreman espazialen zirkuluaren barnetik, baina honen kanpotik aldi berean (1988: 319). Identitatearen definizio postmetafisiko bezala postmodernitatearen ideiekin zeharo bat dator. Era berean, Homi Bhabhak honakoa adierazten du, bere uste osoa dela

the encounters and negotiations of differential meanings and values within 'colonial' textuality, its governmental discourses and cultural practices, have anticipated, *avant la lettre*, many of the problematics of signification and judgement that have become current in contemporary theory: aporia, ambivalence, indeterminacy, the question of discursive closure, the threat to agency, the status of intentionality, the challenge to 'totalizing' concepts. (2004: 248),

pentasa genezake migrazio-literaturaren egoera literatur-teoria postmodernoaaren problematikarekin bat datorrela. Hori horrela izango da literatura nazional batera bat-batean atxikitzea eragozten duen heinean; autobiografia eta fikzioaren arteko bereizketa birpentsatzea bultzatzen duen heinean—bizipenaren kontaktak eta kontatutako bizipenak taxutzearen arteko bereizketarekin egiten duen bezala—, literaturaren bidez, paisaiarekiko harremana pentsatzen jarraitzeko ikuspegi berriak irekitzen dituen heinean (azken urteetan irteten ari diren problematikak dira horiek); hasiera batean ez-leku batetik ezartzen den posizio batetik, baina Marc Augéren sobremodernitateari (1993) dagozkion espazioaren jabetze estrategiak eragiten dituenak. Kristevak kanpotarraren identitatearen inguruan dituen ideiak gehitzea ere posible da:

Y es tal vez a partir de la subversión de este individualismo moderno, a partir del momento en que el ciudadano-individuo deja de considerarse unido y glorioso y descubre sus incoherencias y sus abismos —sus "extranjerías", en suma— cuando la cuestión se plantea de nuevo: fin de la acogida del extranjero en el interior de un sistema que lo anula para dar paso a la cohabitación de los extranjeros que todos reconocemos ser. (1991: 10).

Proposamen hau hain utopikoa izanda ere, migrazioaren literaturaren posibilitate bezala nabarmendu beharrekoa iruditzen zaigu hibridazioarekin (Bhabha), mestizajearekin⁵, kreolizazioarekin (Glissant), hots, teoriak autore ezberdinen lanetan txertatu dituen terminoekin eralzionatutako identitate forma berriaktaularatzeako

OHARRAK

5 | « Celle-ci permet au métissage d'avoir une fonction culturelle et sociale globale: il constraint, dans le cadre de l'hégémonie idéologique moderne européenne, occidentale, en Europe, en Occident, hors de l'Europe, hors de l'Occident, de penser le possible d'une culture, d'une société, dans la reconnaissance de déterminations croisées et dans l'invention culturelle et sociale que constitue ce croisement». Bessière, J. (2005: 19).

duen gaitasuna. Identitate postkolonialaren ezaugarri hauek definizio identitario postmodernoetan ere aurkitzen dira. Teoriak, baina, desplazamendu eta deserrotzeak dituzten aukeren hipotesi eta deskribapenak egiteko saiakeran, ez du derrigorrean baliokiderik aurkitzen esperientzia migratzailetik datozen literatur ekoizpenetan⁶. Honek, hasiera batean postmodernitate eta postkolonialismoaren elkarketa hau ezerezean uzten duela badirudi ere, kontzeptu biak pentsatzen jarraitzen lagundu behar gaitu. Bata eta bestea estutasunik gabe ondoan jartzea ezinezkoa izan arren (izan ere, hori egiteko asmorik ez dago), konparazioak beti laguntzen ahal du dituzten esanahiak birdefinitzen eta birformulatzen. Caren Kaplanek planteatzen duen moduan, postmodernitatean desplazamenduaren metafora nola erabiltzen den ebaluatzea da helburua, eta honekin batera ikustea diasporaren subjektibitatearen inguruko teorizazioek zein eragin daukaten erbesteari buruzko mendebaldeko diskurtsoaren egonkortasunean (1996: 103), hau mendebaldeko modernitateari hertsiki loturik egonik.

Gure ustez, testu mota hauetan erakargarria suertatzen dena identitateak nola negoziatzen diren ikusteko aukera ematen dutela da, sorburukoa ez den baina ohizkoa bihurtzen den testuinguru batean, salbuespen bezala hasi baina egunerokoa bilakatzen dena. Mugimendu hau burutzeko ez da beharrezkoa herrialde postkolonial batetik etortzea. Egia da, ordea, gisa honetako esplorazioak maizago topatzen direla jatorri ez zentriko bateko autoreen narratiban, gehienetan identitate nazionalarekiko ziurtasun absente bat dagoelako, eta absentsia honek ematen dio indarra kontziente bilakatzeko, migrazio-bidaia bat gauzatzerakoan.

Bestalde, ezin da alde batera utzi ikerketa postkolonialek identitatearen auzi hauek (eta baita identitate hauek ekoitzi eta aldatzen dituen literatura) ulertzeko planteatutako ikuspegia. Hein batean, lehenago aipatutako Kristevaren hitzak filiazio nazional, moderno eta kanonikoen arabera literatura azterlan batekin ere lotu ditzakegu. Mendebaldeko kanona eraikuntza «bateratu eta loriatsu» bat bezala har genezake, baina bere «inkoherentzia eta amildegia» gero eta ageriagoan uzten dituena. Inkoherentzien gainera gotorleku hori mantentzeko kritikaren parte batek duen borondateaz haratago, amildegia ikerketa eransteak – esploratugabeko espazio bezala hartuta, eta ez huts absolutu bezala – kanonaren halako «atzeritartze» bat ekar dezake, eta finean onurak besterik ez dizkio ekarriko. Gure proposamenaren arabera, literaturaren ikerketaren toki horretan, amildegia horretan, kokatzen da migrazioaren literatura. Ez bakarrik etorkina figura arraro bat delako, «kanpotarra» den norbait, traidore izan litekeen norbait (behin alde egin badu, berriz ere egin lezake). Baita Boehmerrek dioenagatik ere: «their work has drawn criticism for being a literature without loyalties» (1995: 236), eta honek zailtzen du, esaten ari ginen moduan, tradizio

OHARRAK

6 | Ikusi, adibidez, Casolla, A. (1995: 178); Petric, J. (1995: 170); Mertz-Baumgarten (2004: 288).

nazional bakar batekiko atxikimendua. Globalizazioaren aurka nola edo hala borrokatzea beharrezkoa baldin bada, gure ustez honek ezin du funtzionatu nazionalitateak finkatuta dauden modu berean indartuz. Hau da, nazionalitateak mugiezintzat eta raganean argi eta garbi definitutakotzat jotzen badira, eta gainera, eremu estetiko eta artistikotik ere errespetatu behar badira. Literatura eta nazioaren arteko erlazio hauek desegin behar dituen mundu postkoloniala izatearen arrazoia, gure iritziz, nazio eta literaturaren asoziazio horixe Mendebaldean sortu izatean datza (Brennan, 1990). Migrazio-literatura literatura unibertsalaren kanonean integratzeko prozesuan, mendebaldeko mundua Gniscik (1996) eta beste baztuek aipatzen duten Europaren deskolonizaziorantz mugitzen has liteke.

3. Literatura unibertsala edo munduko literaturak

Hortaz, proposamen hau literatura konparatuaren corpusaren problematikan txertatzen saiatu nahi dugu, problematika hau *Weltliteratur* horren ikerketarako metodo moduan ulertuz. 'Literatura unibertsalaren' kontzeptuak urteak daramatza zalantzapean, baina oraindik ere literaturaz hitz egiteko orduan nazioa gainditzearen dilema konpontzeko irteera bezala ikusten da. Migrazio-literatura *munduko literatura* berri bezala ulertzen duten Rene Wellek, Henri Remak eta Joseph Lambertek gogoetak jarraitzen ditugu, Armando Gnisciren ideietaraino iristeko.

Rene Wellekek bere hitzaldi sonatuan egindako baieztapenek honakoa defendatzen zuten: «la investigación literaria actual necesita, en primer lugar, tomar conciencia de la necesidad de definir su materia y el objeto de sus intereses» (1958: 86). Lan honek Wellekek konferentzia berean planteaturiko beste ildo batzuk jarraitu ezin baditu ere, beharrezkoa dirudi gutxienez premisa horri lotzea. Honetxegatik, eta Henry Remak postulatuetan ere jarraituz, migrazio-bidaiaren literaturaren ikerketa *Weltliteratur*-aren ikerketa laburbiltzeko era bezala proposatzen dugu: «Debemos disponer de síntesis, a menos que el estudio literario quiera condenarse a sí mismo a la fragmentación y el aislamiento externos» (1971: 90). Era berean, uste dugu narratiba hau eransteko bidea (orokorrean ikerlan kanonetan lantzen ez dena) José Lambertek azaltzen duen moduan (1989) funtzionatzen duela, hau da, teoriarentzat berarentzat aukera-sorta handituz: ikerketa literarioen berrikuntza bat nahi baldin badugu, paradoxikoa litzateke testu, autore, genero, konbentzio eta kultura berdinak lantzen jarraitzea, gainditu nahi ditugun aurreneko ikerketen gainean finkatzen direlako.

3.1 Norabide posible bat

Herrialde batetik bestera, kultura batetik bestera igarotzean ekoiztako testuak lantzen dituen ikerketa konparatista batek ikuspuntu nazional batetik egindako literatur ikerketa ezegonkortzen du. Testua abiapuntuko kulturaren zein etorrerako kulturaren jaso daiteke. Testuaren jatorria aztertzerakoan baztertu ezin den ibilbidea egiten du iragaite honetan. Nahiz eta testu literarioan aurki dezakeguna migrazio-bidaiaren errepresentazioa izan, eta ez bizipen pertsonal baten bilakaera, orduan ere bi kulturen artean mugitzeko saiakera imajinarioa ekarriko du. Badago klase honetako testuak mendebaldeko kanonean sartzeari ikusten zaion eragozpen bat. Rey Chowk planteatzen du horrelakoren bat⁷, eta funtsean konparatistaren interesa eurozentrismo inperialistaren forma berri bat dela esan nahi du, eta inoiz ez duela *besteen* testu horiek benetan ulertzerik lortuko. Erantzun moduan, kontrakarrean jarritako irakurketaren ideia iradoki dezakegu, neurribatean dekonstrukzioaren praktikaren parekoa dena. Chowk, beste batzuen artean, uste badu konparatista batek inoiz ez duela kultura bat (eta beraz, testu bat) bertako batek bezala irakurtzerik izango, asmoa ez da kontra egitea izango berarekin baieztatzea baizik: *atzeritarraren* irakurketa irakurtzeko forma aberasgarri bat izan daiteke. Argi dago irakurketa modu hau ez dugula bakarrik tradizio ez mendebaldarreko testuentzat defendatzen, neurri batean, ikerketa postkolonialek hasitako mendebaldeko kanonaren berrirakurketa bati ere badagokiolako. Ikerlan hauek mendez-mende irakurri diren testu horietan beretan kritikak aintzat hartu ez dituen eraikuntza eta errepresentazioak aurkitzea posible dela egiaztatu badute, beharrezkoa izango da horiek beste behin ere nabarmentzea, testuok *atzeritar baten* moduan irakurtzeko. Garrantzitsua da zenbait kritikarik testu baten balio politiko-etikoaren eta balio estetikoaren artean egiten duten bereizketa. Posible da bata baztertu eta salatzen den bitartean bestearen ekarpenak aitortzen jarraitzea.

Beste alde batetik, periferiatik zentrorako mugimendua bereziki interesatzen zaigu, XX. mendearen erdialdetik hona etengabe garatzen ari den mugimendua baita. Hori dela eta, koloniak ziren herrietatik garai bateko metropolietara mugitzea eskatzen duten migrazioen narratiba da hemen hausnartzen duguna. Proposamen honek, adibidez, ez du arretarik jartzen Europatik Amerika eta Australiara batez ere XIX. mendearen bukaeran eta XX.-aren erdian eman ziren migrazio-mugimenduetan. Gure iritzian, bi mugimenduek (sinplifikatuz, zentrotik periferiara eta periferiatik zentrorakoek) batez ere, autopertzepzioari eta Bestearen ikusketari dagokionez, eta baita espazioarekiko erlazioari dagokionez ere, aurkezten dituzten berezitasunek eremu ezberdinak osatzen dituzte. Hauek aparte aztertu behar dira, berezitasun horiek kontuan hartuko dituzten ikuspegietatik; eta ondorioz, ezberdinak suertatuko dira. Argi dago

OHARRAK

7 | “the integration of non-Western texts into the comparative literature canon may just mean confronting a new class of ‘Eurocentric’ specialists in remote cultures: there is no guarantee that exposure to the alien canon will teach anyone to see it as the locals see it” (1995: 109).

beste hainbat ezaugarri ere elkarbanatuko dituztela. Baina narratiba hau bidai-narratibaren ikuspuntutik lantzeak ez du esan nahi jatorrizko eta iritsierako kulturen berezitasunek narratibaren baitan halaberrez beren lekua topatzen dutela ahaztu behar denik. XX. mendearen erdialdetik aurrera (baita gaur egun ere) metropolirantz egiten diren migrazio-mugimendu masiboak interesatzen zaizkigu, eta bizipen kolektibo horrez gero eratzen den literatur ekoizpena. Modu honetan, ikuspegi teorikoak aldatuta ere betiko kanon berbera irakurtzen jarraitzearen problematika gainditzen da.

Lan hau esplizituki literatura konparatura, hau da, diziplina akademiko batera, atxikitzeo erabakia oso ongi lotzen da Linda Hutcheonek gaiaren inguruan dituen iritziekin. Era honetako lan batek justifikazioen bat lortu badezake, hurrengo ideia honekin izan beharko du zerikusia: literatura konparatua «inherently contrarian» delako ideiarekin⁸. Literatura konparatua, bere buruaz galdetzeko duen ohitura horrekin, etengabe aldaketaren zain eta bere oinarriak berriz pentsatzeko prest dagoen diziplina baldin bada, hementxe kokatuko dugu gure lana. Gaiaren egoera hori dela kontuan hartuta, literatura konparatuak esparru akademikoan bere funtzioa betetzen duelako ustean, *Weltliteratur*-aren interpretazio eta analisi baterako aukera arriskatzearen egokitasunak saihestezina dirudi. Oraindik ere beharrezkoa baita jabearen lanabesak erabiltzea bere eraikuntza akademikoa dekonstruitzerakoan, hainbeste hamarkadetan *Welt*-hitz alemaniarraren esanahiaren bertsio partzial batean zentratua egon dena. Era berean saihestezina da testuinguru askoz zabalago batean, mendebaldeko kulturak Bestearekin duen harremanean, Bestea, orain ere, beti bezala, bueltatu egin baita.

Lan honen saiakera teoria artikulatu bat eraikitzea da, *nola egin* galderari erantzun posible bat emango diona. Bidenabar, esan behar da galdera hau behin eta berriz agertzen dela konparatismoaren barruan definitu beharreko auzien artean (Moretti, 2000: 65; Tötösy, 1997: 223; Greene, 2006: 221; Saussy, 2006: 22). Lehenengo eta behin, Eric Auerbachek 1952ko «Filologia de la *Weltliteratur*» artikuluan azaldutako proposamenak jarraituz, bidaiaren kontakizuna epifenomeno bezala definitzea interesatzen zaigu. Epifenomeno honek munduko literaturaren ikerketa infinitu horretara nahiko zehatza den objektu batetik abiatuz dedikatzea ahalbidetzen digu. Nola den posible esanahi eta inplikazioz beterik agertzen den abiapuntu batetik hasita objektu zabal bat tratatu nahi izatea, hori da Auerbachek luzaz azaltzen duena. Bere ustez, obra kritiko on bat «no és una gran acumulació de molt, sinó una irradiació a partir de molt poc. (...) Només quan es troba un fenomen marcadament delimitat, mesurable i central com a punt de partença serà possible la realització dels plans» (1952: 124). Asmo handiko helburu honekin migrazio-bidaiaren kontakizuna literatura unibertsala XXI. mendearen esparruan ikertzeko abiapuntu bezala proposatzen dugu. Gure

OHARRAK

8 | “To be contrarian is to oppose or reject popular opinion, something comparatists have done quite regularly” Hutcheon, L. (2006) p. 224.

asmoa, lan honen garapenean eta ondorengo ahaleginetan, azken urteetan literaturaren teoria arduratzen duten aldagai sorta baten azterketarako migrazio-bidaiaren kontakizunak abiapuntu bezala funtzionatu dezakeela frogatzea da, gainetik bederen. Helburua ez da aukerak agortzea, ezpada planteatutako problematikaren markoaren barruan beharrezkoa eta egokia delako usteen bere burua ziurtatzea.

Bigarrenik, garrantzitsua da halaber ezaugarri hauetako ikerketa baten ezintasunaren inguruko kritika posibleei aurrea hartzea. Franco Morettiren proposamenak jarraituz (2000: 68) akademiako kideengan konfiantza izateak horrelako aztergai zabalez jardutea ahalbidetzen duelako uste osoarekin sartu ginen garapen honetan. Gero eta saiakera gehiago idazten dira esparru konparatistan migrazioaren literaturari buruz (aurreko hamarkadekin konparatuz gero). Artikulu gutxi dira, ordea, aztertzen duten ekoizpenaren barnean migrazioaren tematizazioa bilatzen dutenak. Kasu gehienetan autore, nazionalitate, testu konkretuen ikerlanak dira⁹, diasporaren edo, orokorrago, postkolonialaren etiketaren barnean kokatzen dituztenak. Uste dugu lan hauen bidez posible dela haien ondorioak gure ikerlanarekin biltzea, migrazioaren kontzeptualizazio berri bat eratuz literaturaren barnean.

4. Abegikortasun planetarioa

Periferian ekoizitako literatura mendebaldeko kanonean zein lekutatik txertatu daitekeen galderari erantzunez, uste dugu posible dela migrazioaren literatura bidegurutze aberasgarri batean kokatzea. Alde batetik, gisa honetako literaturak lagundu, baina literatura osora heda daitekeela pentsa daitekeeen ikerketarako kontzepzio postnazional –ez bada a-nazional– batean kokatutako ikuspuntuari ekinga,. Kritika postkolonialean ohikoa da literatura pentsatzeko forma posibleen adibide bezala literatura ez-mendebaldarra metodologikoki erabiltzeari uko egitea (Spivak, 2003). Hala eta guztiz ere, uste dugu benetan merezi duela literatura nazionalen eraikuntza planetarioetan berriz ere ez erortzeko saiakera egiteak. Literatura klase horren osaketan dauden ezaugarri bereziak (finkatutako kanonaren arabera mendebaldeko literaturaren ezaugarrien antzik nekez izango dutenak) mundu globalizatuaren baldintza berriekin uztartuz, posible da literatura unibertsalaren ikerketa-paradigma berri baten garapenean saiatzea, literatura unibertsal terminoaren zailtasunak ahaztu gabe, baina haietaz baliatuz. Konparatistakaren eginkizunaren zailtasunak aitortzea beti izan da diziplina honen ezaugarri definitzaile bat (Farinelli [1925]; Greene, [1994]; Moretti [2000]; Gnisci [2002]; Saussy [2006]).

OHARRAK

9 | Ikusi, adibidez, Russel King eta Irene Andres-Suárezen bildumak bibliografian.

Beste alde batetik, migrazioaren literaturaren ikerketak literatur ekoizpen ez-mendebaldarrari ateak irekitzen dizkio Bestetasuna erabatekoa ez, baizik eta partziala den toki batetik. Idazketa “kanpoko-baina barruko” leku batetik taxutzen duen hutsune horretan posible da diferentziak ezabatu gabe integratuko duen espazio bat zulatzea. Spivaken proposamena, izaera planetarioaren definizio bat adierazten duena, erabilgarria suerta dakiguke (2003: 74). Horretarako ez da arazoa testu batean alteritate bezala zerikusirik ez duten elementuak topatzea: hori da lur-globoaren gainean izkiriaturako planeta baten ezaugarria, mespretxagarria den hori (*unheimlich*) zentzuareb eraikuntzaren barruko zati bat denean. Hori bezalako ikuspuntu batek izango lukeen garrantzi politikoak ez digu ihes egiten, jakina. aldaketa dakar migrazioa ulertzeko moduan, gertakari marjinal bat izatetik kulturaren fenomeno estruktural bat izatera pasatzen baita. Unibertsaltasunerako asmoak ardura europar -ezpada frantses- bezala sortzen badira, orduan egokia litzateke hori bezalako ekarpenak herrien ulermenerako bidean aintzat hartzea kritikaren parte batek helburu hau gaitzesten badu ere, gure ustez ezin baitaiteke baztertu. Hala, gure egiten ditugu Armando Gnisciren hitzak:

¿no es la literatura el discurso común que las culturas intercambian entre sí para traducirse todas ellas recíprocamente y para que las traduzcamos dentro de nosotros y entre nosotros, para traducir y desplazar continuamente hacia el futuro —y no solo hacia los museos del pasado— todo lo humano, con todas sus historias y todas sus formas simbólicas? (2002: 12).

Honek, gainera, bide ematen du pentsatzeko arrotza dena kulturaren txertatzea errazagoa izan daitekeela kanpotarra dena gizarteratzea baino. Ez dago argi zer den lehenago gertatu beharrekoa. Baina lan honen helburu idealista bezala hurrengo defenda dezakegu: gure artean bizi den Bestearen ekoizpenak aitortuz, batetik, eta orain arte erabiltzen ziren eta hein handi batean kanpoan uzten zuten kategoriak birformulatuz, bestetik, atzerritarraren onarpen eta bertakotzea sustatu daitekeela defendatu ahal izatea, pertsona guztiak barne hartuko dituen gizarte berri batean. Berrito hartuko dugu honetarako Gniscik abegikortasunaren kontzeptuaz egiten duen erabilera. Analisia migrazio-kontakizunaren literaturan zentratzean, abegikortasun bikoitz batean pentsa dezakegu: bai hitzez hitzeko zentzuan, hau da, Bestea etxera iritsi eta bere presentzia onartzean, eta baita beste zentzu metaforikoago batean ere. Azken hori da Gniscik literatura konparatuarentzat aldarrikatzen duena: «comparar significa pues estudiar y trabajar juntos en el respeto de las diferencias para crear una nueva dimensión comunicativa: la de la hospitalidad recíproca» (1996: 190).

Tradizionalki Bestea bezala ikusi denaren ekoizpena era ez fagozitatzaile eta asimilatzaile batean txertatzearen borondate horregatik aldarrikatzen da kanpotarraren figura, nahitaez kanpotar izaten jarraitzea behartu gabe. Abegikortasun bikoitza Bestearekiko topaketa irakurgarri egiteko saiakerarekin erlazionatuko da, kultura guztiak atzerritartzat hartzen dituen toki batetik.

Marko teoriko honek literatura konparatuaren ikerketaren barruan, munduko edozein lekutan, migrazio-bidaiaren kontakizunaren tokia zein den aztertzea ahalbidetzen badu ere, planteamendu osoaren azpian badago halako asmo bat diziplina humanistiko honetan bizirik dirauen eurozentrismoa seinatzeko. Iraganarekin konparatuz, diziplina honek aurrerapauso handiak eman arren, munduko literaturaren ikerketaren premia batek bizirik dirau, batez ere helburu europar-mendebaldar bezala. Izan ere, ekoizpen ez-mendebaldarra tradizio serio, finko, bakar eta mendebaldarraren eranskin moduan ikusiteko joera mantentzen du. Gniscik ederto dioen moduan, «la 'literatura universal [...] sigue siendo un sueño del Siglo de las Luces y el Romanticismo. Hoy trabajamos más bien en una disciplina literaria mundial» (1996:190); hau da: kontua ez da kontrolatu ezin den materia baten unibertsaltasuna nahi izatea (literatur ekoizpena bezala), baizik eta materia horretara jotzeko formak ahalik eta unibertsalenak izatea. Amets moduan, Arrazoiak dirau. Baina ezerk ez gaitu teoria baten mugak finkatzerako orduan oinarri arrazional hori arbuizatzea eramaten. Diziplinarekiko harremanen esparru enpiriko batean, gogoratzen digu Gniscik «la aprobación de los intelectuales del mundo entero a la literatura comparada» (1996: 191), eta egiaztapen honetatik abiatuta proposatzen dugu unibertsaltasunaren bilaketa ez dela kontzentratu behar soilik akademia helburu komun baten aurrean elkartzean, baizik eta baita elkarketa horren adierazpen enpiriko-testualei dagokienez guztiena denaren aurrean ere: eta migrazio-bidaiaren narratibak hurbiltzetahonen objektu bezala funtzionatzen du, hurbilketa literala eta figuratua.

Bibliografía

- ANDRES-SUÁREZ, I. (ed.) (2004) *Migración y literatura en el mundo hispánico*. Madrid: Verbum.
- AUERBACH, E. (1952) «Filología de la Weltliteratur», en *L'Espill*, 21, 2005, 117-126 orr.
- AUGÉ, M. (1993) *Los no lugares: espacios de anonimato: una antropología de la sobremodernidad*, Barcelona: Gedisa.
- BERNHEIMER, C. (ed.) (1995) *Comparative Literature in the Age of Multiculturalism*, Baltimore: Johns Hopkins UP.
- BHABHA, H. (1990) *Nation and Narration*, London & New York: Routledge.
- BHABHA, H. (2004) *The Location of Culture*. London & New York: Routledge.
- BRENNAN, T. (1990) «The national longing for form» en BHABHA, H. *Nation and Narration*, London & New York: Routledge.
- BOEHMER, E. (1995) *Migrant Metaphors. Colonial and Postcolonial Literatures*. Oxford & New York: OUP.
- BRUNEL, P. y Ives CHEVREL (eds.) (1994): *Compendio de literatura comparada, México: Siglo XXI*.
- CHOW, R. (1995) «In the Name of Comparative Literature», en BERNHEIMER, C., o.cit., 107-116 orr.
- FARINELLI, A. (1925) *Petrarca, Manzoni, Leopardi. Il sogno di una letteratura 'mondiale'*. Torí: Fratelli Bocca ed.
- GUILLÉN, C. (1985) *Entre lo uno y lo diverso*, Barcelona: Crítica.
- GNISCI, A. (1996) «La literatura comparada como disciplina de descolonización» en VEGA, M.J., 1998, *La literatura comparada: principios y métodos*, Madrid: Gredos, 188-194 orr.
- GNISCI, A. (2002): *Introducción a la literatura comparada*, Barcelona: Crítica.
- GREENE, R. (2006) «Not Works, but Networks. Colonial Worlds in Comparative Literature» en SAUSSY, H., *Comparative Literature in an Age of Globalization*, Baltimore: Johns Hopkins UP, 212-223 orr.
- HARGREAVES, A. (1995) «Perceptions of Place among Writers of Algerian Immigrant Origin in France» en KING, R. *Writing Across Worlds. Literature and Migration*, London and New York: Routledge, 89-100 orr.
- HUTCHEON, L. (2006) «Comparative Literature: Congenitally Contrarian», en SAUSSY, H., *Comparative Literature in an Age of Globalization*, Baltimore: Johns Hopkins UP, 224-229 orr.
- ISRAEL, N. (2000) *Outlandish. Writing Between Exile and Diaspora*. Stanford: Stanford University Press.
- KAPLAN, C. (1996) *Questions of Travel: Postmodern Discourses of Displacement*. Durham, N.C.: Duke University Press.
- KING, R., J. CONNELL y P. WHITE. (eds.) (1995) *Writing Across Worlds. Literature and Migration*, London and New York: Routledge.
- KRISTEVA, J. (1991) *Extranjeros para nosotros mismos*, Barcelona: Plaza&Janes.
- LAMBERT, J. (1989) «En busca de mapas mundiales de las literaturas», en BLOCH DE BEHAR (ed.), *Términos de Comparación*, Montevideo: ANL.
- MARIÑO, M., María de la O OLIVA (coord.) (2004) *El viaje en la literatura occidental*. Valladolid: Universidad de Valladolid, Secretariado de Publicaciones e Intercambio Editorial.
- MARIÑO, M., María de la O OLIVA (coord.) (2006) *El viaje concluido. Poética del regreso*. Valladolid: Universidad de Valladolid, Secretariado de Publicaciones e Intercambio Editorial.
- MILHAUD, O. (2006) «Post-Francophonie?», *EspacesTemps.net*, 31/08/08, <http://espacestemp.net/document2077.html>.

- MORETTI, F. (2000) «Conjeturas sobre la literatura mundial» en *New Left Review*, 1, 65-76 orr.
- NUCERA, D. (2002) «Los viajes y la literatura», en GNISCI, A. (2002) *Introducción a la literatura comparada*, Barcelona: Crítica, 241-289 orr.
- REMAK, H.H.H. (1971) «La literatura comparada: definición y función», en VEGA, M.J., 1998, *La literatura comparada: principios y métodos*, Madrid: Gredos, 89-99 orr.
- SAUSSY, H. (ed.) (2006) *Comparative Literature in an Age of Globalization*, Baltimore: Johns Hopkins UP.
- SIMMEL, G. (1988a) «Digressió sobre el foraster», en *Sociologia: Investigació sobre les formes de socialització*, Barcelona: Edicions 62, 318-324 orr.
- SPIVAK, G.C. (2003) *Death of a Discipline*, New York: Columbia UP.
- TÖTÖSY DE ZEPETNEK, S. (1997) «La literatura comparada y la aproximación sistémica a la literatura y la cultura», en VEGA, M.J. (1998) *La literatura comparada: principios y métodos*, Madrid: Gredos, 215-229 orr.
- VEGA, M.J. y Neus CARBONELL (1998) *La literatura comparada: principios y métodos*, Madrid: Gredos.
- WELLEK, R. (1958) «La crisis de la literatura comparada», en VEGA, M.J. (1998), *La literatura comparada: principios y métodos*, Madrid: Gredos, 79-88 orr.